

ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotza enmarrazten 73.alea • 2022ko urtarria

JAVI GONZÁLEZ

*Futbolari ohia eta Athletic Clubeko
Kadete Taldeko entrenatzailea*

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com

Izan korrika laguntzailea

EKIN KORRIKARI!

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortuko duzu:
AEKren euskaltegi*ei* laguntzea.
Horrez gain, pina eta txartelaren
abantailak eskuratuko dituzu.

GALDETU EUSKALTEGIAN:

Zalbidea 7
663 080 976
zorrotza@æk.eu*s*

æk
22.korrika
HITZEKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

æk
22.korrika

HITZEKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

korrika.eu*s*



Herritarren osasuna jokoan

sarrera

FEVERen lurperatzeari buruzko informazio-azterlana egiteko epea urrian amaitu zen. Ikerketa horren emaitza ezagutzeko gestioak egin ditugu, baina gaur egun ez da publiko egin, eta beraz, zain gaude.

Era berean, Aldundiak Euskal Erroten jabeek erai-kindaren mantentze-plana aurkezteko emandako epea ere amaitu da. Kasu honetan, dirudienez, jabeek mantentze-plan bat aurkeztu dute, Aldundia aztertzen ari dena.

Azken berrien arabera, Sader enpresak leku berria bilatu du lantegia kokatzeko. Profesarekin zer gertatuko den ebazteko dago. Nolanahi ere, auzoak luzaroen jasan duen usain txarren eta kutsaduraren arazoa konpontzeko

bidean, albiste onak. Gai horiei buruzko informazio gehiago dugunean jakinaraziko dugu.

Denbora luzez, eta kudeaketa ugari egin ondoren, azkenean lortu da Adiskidetetasuna etxaldea irisgarria izatea.

Baina une honetan kezkarik badago, osasun publikoaren egoera da, eta batez ere lehen arretan. Horregatik, Auzo Elkarteak eta Auzo Elkarteen Federazioak mobilizazioak burutuko ditugu, herritarren osasuna jokoan dagoela uste baitugu. Osakidetzaren egoera kaotikoa izaten ari da, eta beraz, lanean jarraituko dugu egoera horri buelta emateko.

Bukatzeko, urte berri on gutztoi! Aurrera!



Zorrotzako herri aldizkaria
73. alea, 2022ko urtarrila

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina



Bilbao
EUSKAL
KULTURAREN
ERAKUNTZA

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.

Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTTA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

VIA gráfica

viagraficzorrotza@gmail.com

DisiñUA

Santer & BAR

Afariak ostiral eta larunbatetan
Etxeko berezitasuna: katxopoa.

Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA



2022ko udal aurrekontuko 7 milioi eta erdi euroko inbertsioa jaso du Zorrotzak

ZORROTZ MORROTZ

Udal Osoko Bilkuran 2022rako onartutako aurrekontuen barruan, zazpi partida daude Zorrotzarako. Pinadia taldean *tokiko berdegunea egokitzeko* lurzorua desjabetzera bideratutako 3 milioi euroko diru-partida da guztietatik handiena. Zirgarien kaia Artseñalbidearekin lotzeko 2 milioi euro bideratuko dira, eta jarduketa honetan Bilboko lehenengo Pumptrack pista eraikiko da eta aparkalekuak eta egungo futbol pista ere egokituko dira. Beste 780 mila euro erabiliko dira Zorrotza lurmuturreko ontziolaren kaia egokitzeko. Atletismo-pistako aldagela berri batek milioi erdiko inbertsioa jasoko du

eta beste 700 mila euro erabiliko dira *Trenbidearen Integrazioa Zorrotzan* partidarako, hau izanik FEVE trenbidearen lurperaketaren lehenengo diru-partida. Udalak onartutako aurrekontuak Zorroztgoiti kalean eraikitze-koa den udaltegi zentro berri baten proiektua idazteko 600 mila euro aurreikusten ditu. Eta bukatzeko, 10 mila euro Zazpi Landako adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko proiekturako.


Bilboko Udalak datorren urterako onartutako aurrekontuen proiektua 633.150.000 eurokoa da guztira, 2021ean baino % 8,1 handiagoa.



Adiskidetasuna etxaldea irisgarria izango da

ZORROTZ MORROTZ

Hamarkadetako aldarrikapenaren ondoren, Adiskidetasuna etxaldea irisgarria izango da azkenean, igogailu bat eraikita. Udalak eta bizilagunek lortutako akordioaren arabera, erakundea obra zibilaren kostuaz arduratuko da, eta taldeko bizilagunek igogailua jar-tzea eta mantentzea ordainduko dute. Obrak hasita dira dagoeneko, eta Udalak lau hilabete-ko epea iragarri du espaloian egin beharre-ko lanak amaitzeko.



Udalak herri elkarteei kale publikoa erabiltzeagatik tasa berria kobratu nahi diela salatu du Taldeon Koordinakundeak

AITOR MARIN

Taldeon Kordinakundeak salatu duenez, Bilboko Udaleko Ogasun Sailak, ordainketa-aginduak bidali dizkie 2021ean espazio publikoa erabiltzeko baimena eskatu zuten elkarte soziokulturaleri. «Behin-behineko likidazioaren» jakinarazpenak posta ziurtatuz iristen ari dira, «Obra, Hirigintza Jarduera eta bestelako zerbitzuengatik tasa» konzeptupean.

Zorrotzan, behintzat, jakinarazpen hori jaso dute Jai Batzordeak (Zorrotzalai Larai astea antolatzeagatik), Ibai-Artek (San Juan dantza ikuskizunagatik) eta Txinbotarrek (eskupilota tailerra antolatzeagatik). Hiru kasuetan, tasa 50 eurokoa da. Koordinakundeak adierazi duenez, gainerako auzoetan ere gauza bera gertatu da, eta tasa horien atzean "Udalak asmo argia du parte-hartze publikoa gutxies-

teko eta bere kontroletik kanpo dauden jarduerak ahalik eta gehien saihesteko".

Egun, bide publikoan edozein ekitaldi antolatzaren dute elkarteek eskaera aurkeztu behar dute Espazio Publikoko Bulegoan, xehetasun guztiekin, eta erantzukizun zibileko aseguru bat eduki behar dute. Taldeon Koordinakundearen galdera da ea "zergatik eskatzen den tasa berri bat, baldintza horiek betetzen badira". Horregatik, "kaleak jendearenak direla eta kultura beharrezkoa dela" aldarrikatuta, ezer ordainduko ez dutela adierazi dute, elkarteek doan egiten dutelako lan gure auzoei bizia eta kolorea emateko. Era berean, "inposatu nahi diguten eredu pribatuaren aurrean" gizarte-elkarte guztiei bat egitera dei egin zieten Zorrotzako elkarte hauek abenduaren 11n udaletxeko eskaileretan Auzotarrok koordinadorak deitutako elkarretaratze batean.

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua

1^o urte

ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrata, 12
94 490 12 59



Udal baratze ekologikoak Zorrotzara helduko dira

ZORROTZ MORROTZ

Auzo Elkarteak jakinarazi duenez, Udalak Zorrotzako hiri-baratzeak jarriko ditu herritarren eskura. Zehazki, ekimen hau Zorrotzako Puntan, Kadagua ibaiaren ondoan, burutuko da, hiltegi zaharraren atzean. Landu daitezkeen partzelak bi urterako esleituko dira, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin, eta eskatzaileen artean zozketatuko dira, banaka, taldean, iraupen luzeko langabeei, desgaitasunen bat duten pertsona edo elkar-teei eta irabazi-asmorik gabeko elkar-teei eskainita.

Ekimen honi esker, auzotarrek lurra ekologikoki landu ahal izango dute, lortutakoa beren kontsumorako erabiltzeko.



Bertso saio paregabe batekin ospatu genuen Euskararen Eguna

AITOR MARIN

Abenduaren 3an, Euskararen Eguna aitzakia, uneko osasun-baldintzak beteta, eta beharrezko arreta-neurriak hartuta, mahai batera berriro bildu ginen auzoko euskaltzaleok Zorrotzako Euskal Txokoak antolatzen ohi duen Bertso Afarian. Sabela bete eta gero, Arkaitz Estiballes luxuzko gai-jar-tzailearekin, Aitor Mendiluze gipuzkoarrak eta azken orduko arazoengatik Oihana Bartraren lekua hartu behar izan zuen Sustrai Colina lapurtarrak saio bikaina eskaini ziguten bertaratu ginen euskaldun eta euskaltzale guztioi.



Lehen arretako gainkarga eta utzikeria salatzen kontzentrazio ugari burutzen ari dira anbulategi aurrean

AITOR MARIN

Hilaren 12an eta 19an arratsaldean eta 13an eta 20 eguerdian, Auzo Elkartearen Federazioak eta sindikatuek deituta hurrenez hurren, elkarretaratzeak burutzen ari dira anbulategi aurrean, Osakidetzako utzikeria salatzen. Auzo Elkarteak Zorrotzako osasun zentroko ordutegi murrizketak eta murrizketak oro har salatu ditu, eta aurrez aurreko arreta eta erizaintza kontrol gehiago eskatu ditu.

TXOKO FEMINISTA



Genero-berdintasuna eta emakume nahiz neskato guztien ahalduntzea

Genero berdintasuna oinarritzko giza eskubidea bada ere, ez dago berdintasun osoa eta efektiboa lortu duen herrialderik. Generoen arteko desberdintasuna sistema patriarkalaren bitartez erreproduzitzen da, eta hau, era berean, eremu publiko zein pribatuan emakumeen kalterako generoen arteko erlazio botereak arautu eta emakumeak sistematikoki gizarte erakunde erabakitzaileetatik kanpo uzten ditu. Berdintasuna lortzeko erronkek maila indi-

bidual eta areago kolektiboan zuzentzeko diskriminazio faktoreak presentatzen dituzte, hala nola genero indarkeria, praktika kultural kaltegarriak, zaintzen gainpisua, sexu eta ugalketa eskubideen ez betetzea, teknologiarene erabilera eta lurraren jabetza eskasa. Eta eremu nagusiki politikoan ematen diren diskriminazio politikoa, goi mailako erakunde erabakitzaileetan parte hartze eta genero berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko politiken presentzia urria. Genero berdintasun eta emakume eta nesken ahalduntzean ezin da atzera pausorik eman, populazioaren erdiarekiko hala-beharrezko zorrak baitira.

SALAKETA ARGAZKIA

Renferen geltokirako sarbide berria: irtenbidea noizko?

RENFEren geltokirako sarbide berri bat Kordeleria kaleko 11. zenbakiko kalezuloaren parean gaitzea auzokideen aspaldiko eskaria da. Urteak dira ADIFek Auzo Elkarteari gutun bat bidali zionetik, sarbide hori egia bihurtuko zela azalduz. Gaur egun, ADIFek eta Udalak ez dira ados jartzen a priori garestia eta zaila ez dirudien obra bati ekiteko. Azken bolada honetan, modu ulertezinean, zerbitzuan atzerapen ugari izaten ari diren erabiltzaile askorentzat irisgarritasun hobekuntza handia ekarriko luke balizko sarbide berri horrek.



El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Aroko onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com



Lápices
LIBURVENDENDA



Untziola kalea, 8
ZORROTZA

// Katalunian euskalduna naizela esaten dudanean gehiago irekitzen dira //

MARIAN CEREZO

Bizitokia: Sabadell (Katalunia)

Noiztik: 2015eko bukaeratik.

Adina: 39 urte.

Lanbidea: Postaria.

Duela 6 urte Zorrotza utzi eta Sabadellera joan zen bizitzera maitasunagatik Marian.

Bertan, familia txikia osatu eta postari lanean dihardu.

Bertako bizimodura egokitzea kostatu zitzaion arren "oso ondo tratatzen dutela" dio.



NAROA PEÑA

Nolatan heldu zinen Sabadellera?

2015eko azaroan Sabadellera bizitzera etorri nintzen. Nire bikotekidea hemengoa zenez, maitasunagatik etorri nintzen eta hemen osatu dut nire familia txikia: Aleix izeneko seme bat dut, Sabadellen jaioa, baina bada-kigu Bilbokoak nahi dugun lekuan jaiotzen garela (kar, kar)

Nolako da zure lana?

Urte batzuk eman ditut postetxean lanean, postaria naiz.

Bizimodu berrira moldatzea kostatu zitzaizun?

Asko kostatu zait, batez ere bizimodura egokitzea. Iruditzen zait jendea etxeagoa dela eta zaila egiten zait bizitza soziala egitea. Gainera geure buruan pentsatzen dugu ezer ez dela izango gure lurra baino hobea... Baina egia esanda, bizioz kecatzen naiz, oso ondo

tratatzen naute, eta Euskal Herrikoa zarela esaten duzunean, atea pixka bat gehiago irekitzen dizute. Eguraldira ere ez naiz ohitzen, bero handia egiten du ia urte osoan. Ia ez du euririk egiten, eta euria egiten duenean leihora joaten naiz begiratzera.

Katalana ikasi duzu?

Iritsi bezain laster, katalana ikasteari ekin nion, momentuz B1 daukat. Ulertzen eta primeran hitz egiten dut, nahiz eta denbora gehienetan gaztelaniaz hitz egitera ohituta nagoen.

Oso ezberdina da hango bizimodua Zorrotzan zeneukanarekin alderatuta?

Ohiturak desberdinak dira eta, aldi berean, oso antzekoak: auzoan euskal dantzak ditugu, hemen berriz, *castellerak*; gure txistuak *graila* gogorarazten dit, berdin-berdinak dirudite; eta ez dago txapelik, barretinak baizik. Janaria ere desberdina da. Ez dute po-

teorako edo pintxo ohiturarik. Baina gainera-koan, gauza asko ditugu komunean, batez ere gai politikoa.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Zorrotza eta Bilbora askotan bueltatzen naiz, hilean behin edo bi hilean behin behintzat; auzoan egon naizen azken aldia abenduko zubian izan da. Ezin naiz egon nire lur eta jendea gabe.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Gauza asko sumatzen ditut faltan, nire familia batez ere. Nire lagun guztiak bildu nituen whatsapp talde batean, eta eskerrak bideo-deiak egiten ditugula. Beste aldetik, txakolina aurkitzea oso zaila da eta aurkitzen duzunean oso garestia da gainera. Kiloko txuletak, patata tortilla ona, txipiak eta amaturaren babarrunak... Eta barik kargatua! (kar-kar) hemen jarraitzen dute hamar bidaiako bonobusa erabiltzen.

Zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Hemen gehien gustatzen zaidana familiarekin egotea da, eta calçots-ak jatea. Gainera, laster denboraldia hasiko da eta Txotx denboraldia bezala bizitzen da.

Eta bukatzeko... Zorrotzara berriro bultzera bueltatzeko asmoa duzu?

Betiko geratzeko ez naiz etorri. Argi daukat nire herrian hilko naizela. Oraindik NANA daukat Zazpi Landaren helbidearekin, pena ematen didalako aldatzeak. Katalunian oso gustura nago, baina sentitzen dut ez dela nire lekua: berdea behar dut, aire freskoa, euria... Ez dago auzoa bezalakorik!



“ **Auzora askotan bueltatzen naiz; ezin naiz nire lurra eta jenderik gabe egon** ”

**MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es


**ROCKET
TAVERN**

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98

PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



Clara Campoamor kaleko uholdeak hogeitik gora kaltetu utzi ditu, erantzukizunak oraindik argitu gabe daudela

Euri-jasa etengabearen ondorioz, azaroaren 29an, Clara Campoamor kalea urez bete zen, bertan aparkatuta zeuden hogeitaz ibilgailu baino gehiago hondatuz. Kaltetutako auzokide batekin eta udaleko prentsa bulegoarekin kontaktuan jarri gara, gertatutakoaren nondik-norakoak ulertzeko.


IGOR GUTIÉRREZ

Azaroaren bukaera aldera azken urteetako euriterik luzeenak bizi izan ditugu, hondamendiak han-hemen sortuz. Gure auzoan, urak goia jo zuen azaroaren 29an, Clara Campoamor kalea estaliz. Kiroldegi aurreko aldatza urez bete zen eta bertan aparkatuta zeuden hogeitaz ibilgailu baino gehiago hondatu ziren.

Mikel Loizaga auzokideak autoa maldaren behealdean aparkatuta zeukan, eta biharamunean, goizaldeko bost eta erdietan hartzera joan zen, lanera joateko. “Jadanik kale osoa urez estalita zegoen. Bertan zeuden udaltzain eta suhiltzaileei galdetzean esan zidaten argindarra berreskuratu arte ezin izango zutela ura ateratzen hasi”. Beraz, lanera joateko alternatiba bat bilatu eta, arratsaldeko laurak aldera, bertara itzuli zen. “Uraren maila goizean bezala zegoen, eta handik gutxira, suhiltzaileak hodi batekin ura erauzten hasi ziren, kiroldegiko aparkalekutik”.

Ura kendu eta gero, nor bere ibilgailua aztertzeraz joan zen. “Giltza sartu nuen motorra abiarazteko baina ez zuen kontakturik egiten. Kapota ere blokeatuta zegoen”, dio Loizagak. Orduan, kaltetutako beste adiskide batekin Whatsapp talde bat sortzea erabaki zuten, elkarrizlagutzeko eta erreklamazioak aurkezteko asmoz.

Lehenik eta behin, nor bere aseguru-etxearekin kontaktuan jarri zen eta hara lehen zaplastekoa: aseguruak ez dute bere gain hartzen hondamendi naturalek eragindako kalterik. Aitzitik, Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergora bideratu zituzten. Kaltetu gehienek bide hori onartu dute, behinik behin diru apur berreskuratzeko aukera bakarra baita; hori egin du Mikelek ere. “Ibilgailua tasatu didate, antzinatasunaren eta matrikularen arabera. Ez da bere benetako balioaren erdira ere iristen”. Autoa desegite-ramatean beste apur bat lortzea espero dute.



Aseguruek ez dute bere gain hartzen uholdeek eragindako kalterik

Argindar faltagatik estolderiko ponpaketa-sistema ez zebilen"

Baina kaltetuak ez daude konforme, eta Bilboko Udalak hondamendi honetan erantzukizunen bat hartu beharko lukeela uste dute. Hasteko, uholde-abisua behar baino beranduago emateagatik. Gauzez udaltzainek kotxeen jabeei deitzen hasi ziren, kaletik atera zitzaizten. Mikeli ordu biak aldera deitu zioten baina ez zuen telefono deia hartu, lotan zegoen. Hala ere, bere autoa ezin salba zitekeen. "Ordu horretan kotxea ateratzera joandako batzuekin hitz egin dut eta urak jadanik kale erdia estaltzen zuen. Kaleko goialdean aparkatuta zeuden ibilgailuak baino ez ziren libratu".

Bilboko Udaleko prentsa bulegoarekin kontaktuan jarri gara eta hauxe izan da eman diguten azalpena. Euriteengatik hornidura elektrikoa moztuta zegoen, Iberdrolako transformazio-zentroak jausita zeudelako; hortaz, estolderiko ponpaketa-sistema ez zebilen. Eta, bestetik, tximista batek alerta-sistema aktibatzen duen modema kiskali zuen, akatsaren berri ezin emanez. Horrez gain, uholde-abisua goizeko 09:44an jaso zutela baieztatu digute. Udalarari erantzukizunik eska dakioken galdetuta, zera erantzun digute, erreklamazioak aseguruaren bitartez bideratu behar direla.



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata IO

AUPA ATHLETIC



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

JAVI GONZÁLEZ

Futbolari ohia eta Athletic Clubeko Kadete Taldeko entrenatzailea

// Athletic taldeari dena zor diot. 12 urterekin heldu, eta semea banintz sentiarazi naute //

Urte asko pasatu dira Javi Gonzalez futbolean bere lehen pausuak eman zituenetik. Jokalari moduan ibilbide oparoa izandakoa, guztiok gogoratzen dugu Athleticen emandako urteak. Gaur egun, bere bihotzeko taldeari lotuta jarraitzen du Euskal Ligako kadete mailan entrenatzaile moduan: 15-16 urteko mutikoei bere pasioa helarazten die egunero.



Guztiok ditugu gogoan Athleticen izandako urte arrakastatsuak, baina Athleticera heldu baino lehen, beste hainbat futbol taldetan ibilia zara eta bidea ez da laburra izan: Alavés, Sestao eta Celta de Vigo.

12 urterekin Athleticera heldu nintzen Gurutzeta futbol taldetik. Athleticeko kategoria guztietatik pasa ondoren Bilbao Athleticera heldu nintzen 18 urterekin. Bertan bigarren A mailan jokatu nuen. Ondoren Alavesera urtebete, Sestaon beste horrenbeste, eta urteko bigarren partean partida onak egin ostean, Celtak lehenengo mailarako fitxatu ninduen. Hurrengo urtean, Athleticera itzuli nintzen. Bilbao Athletic utzi behar nuela esan zidatenean argi neukan nire helburua berriro Athleticera itzultzea eta jokalaria profesionala izatea zela. Zorionez, lortu nuen.

Bueltatu zinen 1997. urtean. Denboraldi horretan, klubeko mendeurrena eta txapeldunordeak. Hasiera paregabea!

Bai, urte zorionsuak izan ziren. Giroa ezin hobeoa zen, lagunartekoa. Lezamara egune-ro joatea plazera zen, gainera Luis Fernandez bezalako entrenatzaile batekin. Jokalari zaharragoek berrioi bultzada handia eman ziguten. Denboraldi oparoa izan zen: bigarren postuan gelditu, Champions League jokatzeko aukera, eta hori guztia zaletuekin batera ospatzea izugarria izan zen. Garai hartan bizi izandakoa ahaztezina izan zen.

Denboraldi ona klubarentzat, zalantzarik gabe. Eta zuretzat pertsonalki? Zein da gehien gogoratzen duzun denboraldia?

Ba horixe bera hain zuzen ere. Bospasei gol sartu nituen txapelketa hasi eta hilabete gutxira, eta hasieran taldeko golegile nagusia izan nintzen!. Askok disfrutatu nuen denboraldi horretan.

Baina egoera okertu zen 2005ean. Ia minuturik ez zeneukan eta Israelera joan zinen Haim Revivoren taldera. Nolakoa izan zen abentura hori?

Lesio bat izan ostean, nahi nuena baino gutxiago jokatzen ari nintzen. Orduan Revivorekin harremanetan jarri nintzen bere taldean jokatzeko. Kasualitatez momentu hartan Levante ere nigana etorri zen bertara joateko, baina ezezkoa eman nuen jada Israelera joatekoa bainintzen.

“Txikitako ametsa betetzea lortu nuen Athleticeko lehen taldera bueltatu nintzenean

Espainiako Ligara berriro, Athleticen urterik zailenetarikoa ere bizi zenuen, bigarren mailarako jaistetik oso gertu.

Bai, oso urte zaila izan zen... Entrenatzaile aldaketa asko izan ziren... Taldea aurrera atera eta egoerari aurre egitea gatza izan zen. Baina, hala ere, asko ikasi genuen eta lehenengo mailari urtero eustea zer zaila den ohartu eta hausnartzeko aukera eman zigun.

Alacanteko Herculesera joan zinen... Gauzak ez ziren asko hobetu bertan, ezta?

Bertan bi urte emateko eskaintza helarazi zidaten eta baiezkoa eman nuen batez ere bertako entrenatzailea zen Andoni Goikoe-txea aspalditik ezagutzen nuelako. Beste esperientzia bat izan zen nire ibilbidean baina espero baino gogorragoa. Taldearen egituran oso zorrotzak ziren, premiazkoa zuten irabaztea, denboraldi hasi eta gutxira aldaketak izan ziren... Pentsa nolakoa zen egoera askotan soldata kobratzeko arazoak zeudela.

“Ahaztezina izan zen Mendeurrenako denboraldian bizi izan genuena

Eta futbolari izateari utzi zenion Portugalen. 3. mailan.... Aldaketa nabaria, ezta?

Bai, baina era berean oso esperientzia polit eta aberasgarria. Txikitatik maite dut futbola eta hirugarren mailan jokatzeko prest nengo. Gauza da hemendik kanpo talde bila nengoela eta Portugalera entrenatzaile Alberto Iglesiasekin hitz egin eta bertan jokatzeo aukera suertatu zela. Kanpora berriro joan baino esan zidaten hobeto zela hemen geratzea. Eta egia da oso gustura sentitu nintzela, bai jokalariekin, baita taldea osatzen zuten pertsona guztiekin ere.



“**Talde bat zuzendu, jokalariei ikasitakoa irakatsi eta hemen transmititzen ditugun baloreak helaraztea oso atsegingarria da**

Asko aldatu al da futbola zu futbolari zinetik?

Bai, gaur egun gauza gehiegi daude arreta galtzeko. 12 urterekin Athleticen hasi nintzanean nire premiari handiena eskolatik etxera heldu orduko motxila hartu eta Lezamarra joatea zen. Gaur futbolaren inguruan mugitzen dena harrigarria da... Garrantzirik ez duten gauzei kasurik ez egitea, eta nire jokalariek partidaz-partida hobeak izateko gogor lan egin dezaten saiatzen naiz. 15-16 urteko mutilak dira eta ulertzen dut eguneroko goiz altxatu eta eskolara joan ondoren gogorra dela entrenatzera etortzea, are gehiago exijentzia maila hain handia izanda. Baina argi izan behar dute non dauden eta zer nahi duten. Aukera guztiak aprobetxatu eta gogor lan egin. Alde horretatik oso astuna naiz eta dena eman dezatela nahi dut. Batzuk profesionalak izatera helduko dira, beste batzuk ez, baina bidean dena eman ez duten sentsazioa izan ez dezaten nahiko nuke.

Esan daiteke futbola, ogibidea baino gehiago dela zuretzat?

Dudarik gabe Athletic taldeari guztia zor diot, euren semea banintz bezala sentiarazi naute 12 urterekin taldera heldu nintzenez geroztik. Nire txikitako ametsa betetzea lortu nuen, eta gaur egun jokalaria berriak deskubritzeko aukera daukat.

Baina, ogibidea ere bada. 2012an entrenatzaile lanetan hasi zinen. Futbolelan lanean jarraitzeko asmoa argi zeneukan?

Kontua da urtero Israelera joaten naizela oporretan eta nire lagun baten semearen entenamenduetara joaten hasi nintzela. Bertako jokalaria gazteen ilusioak begiak ireki zizkidan. Lagun honek entrenatzeko agiriak ateratzeko bultzada eman eta Israelen entrenatzeko aukera bilatuko zidala esan zidan... Baina Estatuko futbolaren maila gorena izanda, Madrilera joan eta teknikaria izateko titulu guztiak atera nituen. Ondoren, Santutxuko Danok Bat taldean 6 urte eman, Alavesen bi urte, Baskonian urtebete eta gaur egun Lezaman.

Luis Fernández, Heynckes, Txetxu Rojo, Valverde... Maisu onak izan dituzu. Nor izan da gehien markatu zaituena?

Luis Fernandezi esker Athleticceko lehen taldean jokatzeko aukera izan nuen, berak nire fitxaketa eskatu baitzuen. Heynckes ere garrantzitsua izan zen: hegalean jokatzeko proposamena egin zidan, gustatu zitzaion eta kokapen horretan 100 partidatik gora jokatu nuen. Uste dut garrantzitsua dela jokalariek kokapen guztietan jokatzeko ohitzea, horrela aukera gehiago izango dituztelako. Egia da jokalaria berezia nintzela, isilik gelditzen ez ziren horietakoa baina oro har izandako en-

// Lehendabiziko gola sartu nuen partida ez dut inoiz ahaztuko //

Futbolean bizitako oroitzapenik ederrena?

Familiari Athletic-era lehen mailan jokatzera bueltatuko nintzela esan nienean.

Gehien gogoratzen duzun sartutako gola?

Lehendabizikoa. Errealaren aurka San Mamesen.

Inoiz ahaztuko ez duzun partida?

Aurretik aipatutakoa derbi hori. Lehenengo golaz gain, emozio handiz bizi izan nuen partida izan zelako.

Futbolaririk kuttunena?

Bakarra esatea zaila da. Athleticen Julen Guerrero, Rafa Alkorta eta Joseba Etxeberria jokalaria harigarriak ziren. Aurrari moduan, Figo asko gustatzen zitzaidan futbolari itzela zen.

Eta entrenatzailea?

Pep Guardiola handiena da.



trenatzaileei begira oroitzapen politak gordetzen ditut.

Eta zer nahiago duzu? Entrenatzailea izan edo faltan duzu jokalaria garaia?

Jokalaria izateak ez dauka parekorik. Pentsa, San Mamesera atera, zelaia topera ikusi, zaltetuen indarra... Entrenatzaile moduan orain egoera desberdina da. Hala ere, talde bat zuzendu, jokalariei ikasitakoa irakatsi eta transmititzen ditugun baloreak helaraztea oso pozgarria eta atsegingarria da.

Egun Athleticceko Kadete Taldeko arduraduna zara. Athletic bezalako harrobiko talde batentzat ardura handia da hori, ezta?

Bai, oso. Eguneko 24 orduak ematen ditut pentsatzen nire jokalariei ahalik eta hobe-

rena emateko asmoz. Helburu indibidualak irakatsi, euren sostengua izan, egunero gogor lan egin eta beraiei gogorarazi futbolari profesionala izateko exigentzia nahitaezkoa dela. Nire ardurarik nagusienetakoa jokalariei horixe bera irakastea da.

Harrobia berमतuta dago? Eutsiko dio Athleticce bere filosofiarri?

Bai, dudarik gabe. Harrobiak talde honi hezten laguntzen jarraituko du beti bezala eta benetan harro nago. Talentu eta kalitate handiko belaunaldiekin ari gara lanean prestatuntzarik handiena emateko asmoz. Gainera, lehenengo taldean geroz eta jokalaria gazteagoak daude, eta horrek laguntzen du 15-16 urteko mutilei euren ametsa lortzeko aukera hain zaila ez dela ikusarazten.

LASTER

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

ESKAITZA PROGRESIBOETAN

ARMAZOA +
KRISTALAK GOI-GAMAkoak

265€

Sustapena indarrean + 4,00 esferako eta -2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarretaluxury
OPTICA

SATZ OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidean, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



AGENDA

Urtarrilak 29 larunbata

21:30 Kontzertua:

SMALL JACKETS

Zorrotzako Gaztetxean.

Sarrera: 10 euro



#damolat

molagarria dena
piztera goaz



www **#Damolat**

Hiriguneetako gazteen artean
euskara indartzeko proiektua

Bilbo Handiko gazteekin ikerketa bat egin ostean, nerabeek euskarazko kulturarekin harreman txikia dutela ondorioztatu dute. Gainera, nahiz eta eskolan haurrentzat euskarazko erreferente kulturalak egon, horien falta nabaria dela nerabezarora igarotzean azpimarratu dute.

Horregatik, gazteen artean euskarazko kulturaren transmisioa bultzatzeko helbururarekin, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak sustatutako Damolat Ikas Unitatea aurkeztu zen urrian. Doakoa da eta euskarazko kultura gazteen artean sustatu nahi duten eragileek erabili ahal izango dute.

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (martxo-apirila) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi otsailaren 20a baino lehen.



Faith

Lander Garro

Elkar. 2021. 356 orrialde.



Xabi Ugarte Bartzelonara doa, argazkilaritza ikasteko aitzakiaz Euskal Herriko errepresio-girotik aldentzeko asmoz (edo alderantziz). Ohe baten bila hasi beharko du, lagun eta ezagunen etxeetan; hiri handiko kale eta txokoetara moldatzen joango da, Bartzelonako bertako jendea nahiz han egokitutako euskaldunak ezagutzen, zinema-

eskolan izena eman eta arlo horretan lehen pausoak ematen...

Bere familiak nozituriko zapalkuntzaren motxilak bizkar gainean jarraitzen du, ordea, bai Ugarteren gogoeta eta oroitzapenetan, bai poliziaren eguneroko jardueran ere: Xabiren anaia eta arreba ihes eginda daude, edozein unetan atxilotu ditzakete, eta bere inguruan ere txakurren itzal eta usain nahasezina sumatzen du.



Liher: "Eta hutsa zen helmuga"

(Autoekoizpena) 2021



Atzean utzi dugun urte korapilatsuak utzitako diskarrik onenetarikoa dela esanez hasiko dut testua. Eta, zergatik ez, azken urteetan Euskal Herriko eszenan dagoen talderik onenetarikoa ere bai. Horrelako proposamen bat beharrez-

koa zen. 2020an argitaratutako "Hemen herensugeak daude" zirrargariaren ostean iaizo azaroan 11 kantuz osatutako laugarren lana aurkeztu ziguten.

"Eta hutsa zen helmuga" hainbatetan entzuteko diska dugu. Badaude lehenengo entzunaldian azkar sartzen diren kantak baina beste batzuek euren tarte behar dute. Eta hainbat buelta eman ostean beste diskatar baten aurrean zaudela konturatzen zara. Lide abeslariaren ahots indartsu eta hipnotikoak harrapatzen zaituen horietakoa da. Edozein erregistrotan primeran mugitzen den horietakoa: rock, stoner, soul... goxoa eta basatia alde berean. Gainontzeko instrumentuek osatzen duten oinarri erritmikoa ere aipatu beharra dago. Aurreko lanarekin alderatuz soinu zikinagoa atera dute, organikoa-goa. Eta nahiz eta esentzia hor dagoen aurreko formula ez errepikatzea lortu dute, originaltasuna eta freskotasunari eutsiz. Oso gomendagarria.



PINTXOTAN

Urdaiazpiko kroketa



Zailtasun maila: Ertaina.

Prezioa: 2 euro.

Osagaiak: Irina, gurina, esnea, gatza urdaiazpikoa (puska txikitán), arrautza egosia.

Kazola batean esnea berotu. Beste batean gurina urtu eta pixkanaka irina bota eta eskuzko hagaxka batekin irabiatu. Ondoren, esnea pixkanaka botatzen joan irabiatzeari utzi gabe.

Gatza eman eta segi bueltak ematen. Ordu laurden batera urdaiazpikoa erantsi eta segi irabiatzen. Bost minutu falta direnean, arrautza erantsi, eta segi eragiten. Hiru edo lau aldiz sua indar guztiarekin jarri eta irakiten hasten denean indarra jaitsi.

Ordu erdi batean bueltaka ibili. Horixe da plater honen giltza: asko irabiatzea. Ondoren, erretilu zapal batera atera oreá eta hozten utzi.

TXINBO KAFETEGIA

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:
07:00etatik 23:00etara

Larunbatetan:
08:00etatik 24:00etara

Igandeetan:
08:30etik 23:00etara

Abaro estrata, 10



cafetxinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

*Regalos
Omega*

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfn. 94 441 61 46



Zorrotzako tailerrak

MANU COBO

1891ko otsailaren 19an, Marinel-lo, Tous y Compañía sozietate erregularra eratu zen Bilbon, 500.000 pezetako kapitalagaz, metalezko eraikuntzetan aritzeko. Ignacio Marinel-lo Mota, Carlos Reincke Hinnerichs, Nicolas Tous ingeniariak eta José Orueta Pérez de Tenín abokatu bilbotarrak sortu ebien enpresa. Fabrika Zorrotzan kokatu zuten, Kadaguak Nerbioi itsasadarragaz bat egiten dauen puntan, Ramón de la Sota eta Eduardo Aznar enpresariak ziran instalazioen gainean.

1892an Zorrotzako Tallerrak Sozietate Anonimoa bihurtu zuten milioi bat pezetako kapital sozialagaz. Kapital-ekarpen berriei esker, hiru nabes osatutako instalazioak amaitu ahal izan ziran: galdaragintzako erdiko nabe bat, doikuntzarako ezkerreko albo bat eta galdaketarako eskuineko albo nabe bat. Gainerakoa modeloetarako, sutegirako eta bulegoetarako estalkiek osatzen ebien. Fabrikak 16.000 metro koadroko azalera eban. Metalezko eraikuntzak egiteaz gain, ontzizintzarako eta siderurgiarako ekipamendu-ondasunak fabrikatzen hasi ziran.

1894an, 200 langileko plantillarekin, 700.000 pezetako irabaziak lortu ziran. Zorrotzan, metalezko eraikuntzez gain, turbinen, transmisioen eta galdaren fabrikazioak gero eta pisu handiagoa hartu eban.

1908an Espainiako Gobernuak itsas berrarmatzea aurkeztu eban lehiaketara. SECMk

(Sociedad Española de Construcciones Metálicas) kanoiontzi, torpedo-ontzi eta suntsitzaile baterako galdarak eraikitzea lortu eban Zorrotzako fabrikarako. Galdarez gain, Sthohtert & Pitt patente ingelesarekin lurrunezko garabi mugikorrek fabrikatzen hasi ziran Sestaoko Naval ontziolarako, eta itsas galdaragintzari lokomotoientzako galdaragintza gehitu jakon. 1905ean Zorrotzako salmentak milioi bat pezetakoak izan ziran. Gerra Handia hasi zenean, eta pleita-eskaria handitu zenez, SECMren zuzendaritza Zorrotzan ontziak eraikitzea aztertzen hasi zuten, baina azkenean, taldeak Gijonen eban ontziola baten alde baztertu zuten proiektua.

Zorrotzako fabrika SECMren industria-gune nagusia

1917an Beasaingo bagoi-fabrika SECMtik banandu zuten eta sortu berria zuten Compañía Auxiliar de Ferrocarriles (CAF) filialak errentan hartu eban. Zorrotzako instalazioak, 350 langileko plantillagaz, taldearen produktio-gune nagusia bihurtu ziran, bost milioi pezetatik beherako fakturazioagaz. Eskaera nagusietako bat izan zen galdaragintzako 6 talde eta hedapen hirukoitzeko makinak eraikitzea Armadako ontzientzat. Beste jarduera bat Sthohtert & Pitt patentadun garabi elektrikoak eraikitzea izan zen Sevilla, Alacant, Santander eta Huelvako portuetarako.

Berrogeita hamarreko hamarkadan hainbat patente erosi ziran Bouchayer & Viallet etxe frantsesarekin hodi behartuak fabrikatzeko,



Zorroztako Tailerrak lehen eta gaur egungo irudia (behean)

Steninbock eskorgak fabrikatzeko, Nelson enpresarekin garabiak fabrikatzeko, The Vacuum Brak enpresa ingelesagaz trenbi-deetarako huts-balaztak egiteko, ...

Hainbat birmoldaketa-ahaleginen ondoren, 1987an SECM S.A. - Talleres de Zorroza enpresak bat egin eban "J.J. Krug, S.A." eta "Elyma-Urbasa" enpresekaz, eta "Saelmat, S.A." enpresa sortu ebien, jasogailu, mantu eta garraiokoa.

Hainbat bitxikeri

Auzoko nagusi batzuekaz berba egiten, bitxikeria batzuk kontetan zoskuezan, zelan egiten ebiezan beraien erraminta (kalibratuta eta oso ona, beste mekaniko gazteago batzuk esanda, konpasak, kalibreak....)

- 1897an eskaerarik enblematikoenetarikoa eraiki zen, San Agustin zubi birakarria, Nerbioi itsasadarraren gainean Uribitarteko kaia eta Sendejako kaia (Bilboko udal-txearen ondoan) lotzen ebazana.
- 1910an Gorbeiaiko gurutze egin ebiezan, hirugarrena izanda eta 18mtako altueragaz (Lehenengo biak erori ziran).
- Portugaleteko Bizkaiko zubiaren eraikuntzan parte hartu eban.
- 1936an, espainako estatu kolpisten kontratan itxasoko sarrerak babesteko, arrantzale ontzietan kanioi bat lotzen ebien auzoko tailerretan, aurreko aldean. Esaten eutsiezan BOUak, Zorroztako tailerretan motetan ziran kanioiak eta kolpisten lapurtutako espainako armadako itxasontzi erraldioen kontratan aritu ziran geure kostaldea defendatuz.



Bou Bizcaya itxasontzia. Behean, Zorroztako Tailerretan eginda eta Muros de Nalóneko portuan (Asturias) dagoen garabia



Laku bat munduan

Henry David Thoreau -ren klasikoa ekarri du euskarara Katakrak argitaletxeak, Danele Sarriugartek itzulia. 2 urte pasatxo -1845etik 1847ra- igaro zituen filosofoak Walden lakuaren ondoko etxola batean, Concord bere jaioterritik hurbil, Massachusetts-en. 1854an kaleratu zuen garai horretan oinarritutako liburua. Nekez sailka daitekeen obra da Walden, saiakera eta kronika uztartzen ditu, gai ugariri buruzko gogoetak egunerokoaren kontaktarekin tartekatuz. Hainbat ataletan bereizi dago, batzuk mardulak, laburragoak besteak. Beharbada komeni da Antonio Casado da Rochak hitzaurrean proposatutako irakurketa ibilbideari jarraitzea, hartara lehenengo atala - Ekonomia deritzona – trinkoegia suerta ez dadin, horretan heltzen baitio autoreak bere esperimentuaren alderdirik teknikoenerari – etxolarako materialak, gastuak, janaria...-. Edozein kasutan, beste zenbait lanekin gertatu bezala, nahi erara irakur daiteke, biltegi izugarri eta ordena finkorik gabekoa denez. Gainera, tarteka berrirakurtzeko modukoa ere bada, inoiz agortzen ez diren liburu horietakoa da-eta.



ASIER URKIZA

“**Monumentala da “Walden”, laku-leku batetik kosmosa harrapatzeko adinako apaltasunez idatzia**

Ezin konta ahala norabidetan hedatzen da Thoreauaren esperientziaren oihartzuna. Loturarik argiena ekologismoarekin egin daiteke, gaurkotasun erabateko mugimendua izanik berau. Thoreauaren ekologismoa, halere, ez da naturarekiko harremanetara mugatzen eta bere pentsamoldeari ere badagokio, hots, ikuspegi holistikoari. Autorearen pentsaera ekologista jardun intelektual integralaren aldeko apustua da, jakintza mota askoren gurutzaketan oinarritua -biologia, geologia, geografia, ekonomia, filosofia, teologia-. Teoria eta praktika banaezintzat jotzen ditu Thoreauk, bien bat egitean konkretizatzen du abstrakzioa. Sarritan kontrako bidea ere egiten du, hau da, egitate zehatzetatik abiatzen da bidezidorririk ilunenetan. Era berean, ohartarazpen bat ere bada Walden, etengabeko mu-

gimendu eta denboraren abiadura zorabiagarriari galga ezarri eta gure inguruari bezainbat geure buruari begira jartzeko gonbitea.

Kapitalismoaren garai loriatsuan bizi izan zen arren, ordurako ohartua zen Thoreau produktio-sistema horren eta bizitzaren arteko bateraezintasunaz. Ingurumenaz gain, gizakiaren barrunbeak ere esplotazioaren kalteak nozitzen dituela deitoratzen du behin baino gehiagotan. Kontsumismoa, alienazioa, merkantilizazioa... gaitz horiek eta gehiago seinalatzen ditu Concordeko maisuak, ahoan bilorik gabe. Bestalde, bitxia da Waldenetik maiz nabarmentu izana norbanaikoaren askatasunaren aldarria; Thoreauk, ordea, kutsu kolektiboa ematen die bere ekarpen gehienei, azpiminatearen garrantzia komentatuz: “bizibidea aurrera ateratzea, elkarrekin”. Liburuaren asmoa bera, izan ere, irakurlearen gan eragitea da. Azkenik, Danele Sarriugarteren lana aipatu beharra dago, autorearen prosa kementsua eta gogoeta zein hitz-joko zoliak bikainki ekartzeagatik. Izugarri eskertzen da, halaber, erreferentzia ugarien zehaztapena. Liburu monumentala da Walden, laku-leku batetik kosmosa harrapatzeko adinako apaltasunez idatzia.

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com

helbide elektronikora gaiaren laukian “iritzia” jarrita. Eskerrik asko!



Ez gara enpresa pribatuak, auzoaren alde doan egiten duten bizilagunak baizik

Gauza jakina da Bilboko auzoetako jaiak hiri honek dituen gauzarik onenak direla. Baina gutxi ezagutzen dituzte jai-batzordeak osatzen dituzten boluntarioei eragiten dizkieten burohaustek. Zerbait antolatzeara eta dena behar bezala ateratzeara berez jada zaila bada ere, Bilboko Udala, lagundu beharrean, oztopo da gure bidean aspalditik.

2020ko martxoan, mundu mailako pandemia baten ondorioz, etxean konfinatu ginen. 2020a jarduera bakar bat ere egin ezinik igaro zen, Udalaren arabera jarduera segurua egiteko gai ez baikinen. Gogoz kontra onartu genuen egoera, eta 2021eko jaiak prestatzen hasi ginen. Udaleko Espazio Publikoen Sailarekin izandako bilera baten ondoren, jai-batzorde guztiek argi geneukan zer



NEREA ZULOAGA,
Auzotarrok eta Jai
Batzordeko kidea

“ **Nori bururatuko litzaioke irabazi asmorik ez duen erakundeek espazio publikoa erabiltzeagatik ordaindu behar? Bada, nori eta Bilboko Udalari!** ”

nolako jarduerak egin genitzakeen eta horietan jarraitu beharreko protokoloak zeintzuk ziren. Indarrean zeuden osasun-egoeretara egokitu ginen. Ahalegin handia egin genuen jarduera guztiak aurrera atera ahal izateko. Bazirudien normaltasun minimo batera itzultzen ari ginela.

Baina gure harridurarako, bat-batean gutunak jasotzen hasi ginen, non udalak jakinarazten duen tasa bat ordaindu behar dugula espazio publikoa erabiltzeagatik. Akatsa izan behar zuela pentsatu genuen. Nori bururatuko litzaioke irabazi-asmorik ez duen erakunde bati espazio publikoa erabiltzeagatik tasa bat kobratzea? Bada, nori eta Bilboko Udalari! Eta pandora kaxa irekita, praktika hau kolektibo gehiagotara zabaltzea erabaki dute: dantza taldeak, erraldoi eta burohandien konpartsak, etab.

Auzotarrok-ek Bilboko jai-batzordeen koordinatzaileak, araudi berri hau gure lanaren aurkako eraso gisa ikusten du, eta ez dugu onartuko. Auzoaren alde eta auzoarentzat doan lan egiten dugun bizilagunak gara. Ez da onargarria enpresa pribatuen maila berean jartzea, eta argi utzi nahi dugu auzoetako kultur ekitaldien maila altua eta doakoa izan dadin lanean jarraituko dugula, ez, ordea, Bilboko Udalak egiten duen bezala.

ehbildu

egiteko
beste
modu bat



ASKABIDE
kultur elkarte
ZORROTZA



Julia

Txertoa ipini dutenei leku guztiara modu askean sartzeko onura emateari ondo deriztot.



Jorge

Neurriak nortzuk betetzen ari diren azaleratzeko ondo iruditzen zait, baina edozein lekutara sartzeko erakusteko beharra ez hainbeste.

NARROA PEÑA ETA IRATZE PÉREZ

Covid pasaporte:

Zer deritzozu tabernetara, kiroldegira... sartzeko erakusteko beharrari?



Jesús

Leku guztiara joateko eskatu beharko luketela uste dut. Adibidez futbolera joateko eta supermerkatuetan sartzeko, jende askorekin sartzeko baitzara kontaktuan.



Jandro

Alde batetik ondo egon daiteke, baina bestetik ez zait pandemia geldiarazteko neurri oso eraginkorra iruditzen.



Alazne

Guztion onerako den neurria iruditzen zait, batzuek besteen, batez ere zaugarrienen, osasuna babestu behar dugulako.



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Bilbon euskaraz

B

Bilbao

▶ www.bilbaoeuskaraz.eus

iKasi
MiKasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



HEZKUNTZA-ERAKUNTZAK

Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
● stetecampas@gmail.com



HEZKUNTZA-ERAKUNTZAK

Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
● 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
● 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

KUTXABANK
10 URTE ETA 170 BETE DITU
EUSKAL FINANTZA TRADIZIO ONENAREN EREDU.



EUROPAKO BANKUA DA,
ESTATUKO
KAUDIMENTSUENETAKOA.

ITURRIA: EUROPAKO BANKU AGINTARITZA.



BERE DIBIDENDU OSOA
EUSKADIKO
GIZARTE PROIEKTUETARA
BIDERATZEN DUEN BAKARRA DA.



ETA HAU DENA,
HEMENDIK.